

VULTOURIS IBILBIDEA: **Abodi** (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
ERRAZA



Abodiko ipar-eskiko zentrotik abiatuko gara (taberna/kafetegia), Larraixarra izeneko parajeen. Eremu horri Pikatua esaten zaio, eta Larraixarra Iturzaetako mendatetik (1.573 m) doan errepidean dago, Ori mendiko hegalean. Ibilbidea iraupen-eskiko pista batetik doa zati batean (eski-denboraldian ezin da egin, beraz); hartara, bide zabala da, zailtasunik gabea. Iratiko Oihana ezagutzeko beste modu bat da.

Lehen zatian emeki-emeki igotzen da pagadi batean barna Abodi mendirantz (1.400 m), eta ikuspegi ederra eskaintzen du, besteak beste, Huescako Pirinioa, Zaraitzu ibarra eta Nabaskozeko Almira-dioa ikusten baitira bertatik. Horiek guztiak kontraste handiko lurralde bat osatzen dute, zure zain dagoen aukera sorta zabala eskaintzen duena: arkitektura zaindua duten herriak –arteak eta historiak bat egiten dute horietan–, beren dantzak, ohiturak eta gastronomia ezagutzeko parada eskainiko dizutenak. Kultura arloko eskaintza zabala. Herri ederrak, eliza eta ermitetan gordetako artea, dantzak, transhumantzia...



IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 4,22 km
Gutxieneko altitueda: 1.329 m
Gehiengo altitueda: 1.484 m
Gehiengo desnibela: 155 m

Centro de Interpretación de la Naturaleza de Ochagavía
31680 OCHAGAVÍA (Nafarroa)
Tel.: (+34) 948 890 680
oit.ochagavia@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1761631>

Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net

Hemendik, goi samarretik ikusi ahal izanen dugu Ori mendi mitikoa (2.000 metro dituen lehen mendia da Kantauriko kostaldetik hasita), baita Iratiko Oihana liluragarria ere, urte osoan zehar ikuskizun etengabea eskaintzen diguna. Irati, basoen basoa. Egurketariak eta baso-langileak ibilitako lekua. Iratiko Oihana lurralde zabala da, 17.195 ha dituena; horietatik, %75 basoa da. Mendiz inguratutako arro batean zabaltzen da, Zaraitzu eta Aezkoa ibarren (Nafarroa), Garazi eskualdearen (Nafarroa Beherea) eta Zuberoaren artean. Antzina-antzinetatik ustiatutako basoa izan da, bai abeltzaintzan, bai basogintzan, baita ehiza egiteko ere. Balio natural eta ekologiko handia du, eta Europako pagadi/izeidi handienetakotzat jotzen da; izan ere, gaur egun Zainketa Bereziko Eremu bezala dago katalogatuta, Natura 2000 sarearen barnean.

Paseatu bitartean begiak itxiz gero, kontu liluragarri anitz etorriko zaizkigu irudimenera: almadiazainak Zaraitzu ibaian behera; artzainak Bardearako bidean; historia zaharrak; edo antzinako kondairak, Basajaunena edo Gartxotena –Itzaltzuko bardoa–, besteak beste...

GESTIÓN AMBIENTAL
DE NAVARRA S.A.



hoya de huesca
Comarca Hoya de Huesca • Plana de Uesca

FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL - EFA 04/06

